

104E/2023 EBAZPENA, abenduaren 13koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari-kudeatzailearena, hainbat elkarteri ez ordaintzea ebazten duena, justifikaziorik aurkeztu ez dutelako, euskararen erabilera sustatzeko edo presentzia soziala sustatzeko 2023an jarduerak egiteko irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeentzako laguntzen deialdian.

ERREFERENTZIA :	Espedientearen kodea: 0011-1407-2023-000000
KUDEAKETA UNITATEA:	Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua Tel.: 848 426054 Helbidea: Paulino Caballero kalea, 13, 31002 Iruña Helbide elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

ESPEDIENTEA: Irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeendako laguntzak 2023

Otsailaren 16ko, 10E/2023 Foru Aginduaren bidez, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariak "Irabazi-asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jarduera eta programak egiteko laguntzen deialdia" eta haren oinarriak onetsi zituen.

Horren ondoren, laguntzen esleipena ebatzi zen Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari-kudeatzaileak emandako ekainaren 7ko 39E/2023 ebazpenaren bidez.

Justifikazio-agiriak aurkezteko epea amaitu ondoren, zenbait elkarteek ez dute aurkeztu emandako laguntza jasotzeko beharrezkoa den dokumentazioa, 10E/2023 Foru Aginduaren hamahirugarren oinarrian zehaztutako, hain zuzen ere.

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendariak proposamena egin du elkarte horiei dirulaguntza ez ordaintzeko, eta aldi berean onetsitako laguntza horien diru-kopuruak askatzeko.

Hala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.1.d) eta 44. artikuluek eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Garaiz justifikaziorik aurkeztu ez duten elkarteek laguntzarik ez ordaintzea, eta dirua askatzea, honako xehetasun hauen arabera:

Espediente zenbakia.	IFZ	Elkartea	Lerro ekonomikoa	Urtea	Askatzeko diru-kopurua
0011-1407-2023-000038	G71319909	Euskararen Jaia	G/B30002/B3200/4819/334100	2023	2.799,99
0011-1407-2023-000036	G71458673	Taupada Kultur Elkartea	G/B30002/B3200/4819/334100	2023	3.450,00
0011-1407-2023-000035	G31923378	Otsondo Barride elkartea	G/B30002/B3200/4819/334100	2023	350,00
0011-1407-2023-000034	G31602477	Xaloea elkartea	G/B30002/B3200/4819/334100	2023	7.000,00
0011-1407-2023-000026	G71302871	Nafarroa Oinez fundazioa	G/B30002/B3200/4819/334100	2023	733,90
0011-1407-2023-000014	G31058217	Peña la Única	G/B30002/B3200/4819/334100	2023	2.495,64
0011-1407-2023-000010	G31250087	Zaldiko Maldiko kultur elkartea	G/B30002/B3200/4819/334100	2023	3.073,91



CSV: 1AF38012F7874D14

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:

<https://administracionelectronica.navarra.es/validarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2023-12-13 13:36:01

2. Ebazpen hau elkarte eskatzaile horiei jakinaraztea.
3. Argibide hau ematea: Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2023ko abenduaren 13an

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN
KUDEATZAILEA

NAFAR

INSTITUTUKO

ZUZENDARI

JAVIER ARAKAMA URTIAGA



CSV: **1AF38012F7874D14**

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:

<https://administracionelectronica.navarra.es/validarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2023-12-13 13:36:01